



MARIA JESUS ARREGI / Eneritz Albizu / **uztarria**

Maria Jesus Arregi

Eneritz Albizu Lizaso

uztarria

© Egilea. Eneritz Albizu

© Uztarria Komunikazio Taldea

2013ko abendua

Azala. Eregi Euskara eta Komunikazio Zerbitzuak (Azpeitia)
Diseinua eta maketazioa. Uztarria Komunikazio Taldea
Inprimaketa. Leitzaran Grafikak (Andoain)

Uztarria Komunikazio Taldea.

Helbidea. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia (Gipuzkoa),
207300

Telefono zenbakia: 943 15 03 58

Fax zenbakia: 943 15 03 58

Posta elektronikoa: uztarria@uztarria.com

web orria: www.uztarria.com

AURKIBIDEA

Hasieratik amaierara	07
Abestiaren akordeak	07
Lehen notak, ikastetxean	08
Musikari lotuta	11
Kontralto-ahotsa	13
Afizioa ofizio	14
Unai Bikoarekin, aurrera	16
Bakarka, gitarrarekin	21
Pare-pareko doinua	22
Ekain, arbasoen erritmoa	24
Historiaren ondarea	26
Barruko melodia	30
Lagun artean ere eredu	32
Ekaitzaren ostean, barea	34
Alabaren bidelagun	38
Langile fina	40
Melodia tristenekin ere aurrera	41
Lana komunitatearentzat	43
Eliza baino gehiago	44
Etxeko ateak zabalik	47
Indian ere armoniaz	51
Ideiak eta baloreak argi	55
Etxetik Europara begira	57
Emakumeen eskubideen alde	59
Festazalea	62
Baigeran, gizarteari lotuta	63
Etenik gabeko abestia	67

HASIERATIK AMAIERARA

Etenik gabeko abestia. Horixe izan da, orain arte, Maria Jesus Arregi Uzinen bizitza. Musikarik gabe ezingo luke bizi, hala dio azpeitiarrak. Nabari da hori. Gorabehera handiko bizitza izan du Arregik: doinu goxoekin eta tristeekin, erritmo biziekin eta motelekin.

1945eko uztailaren 19an jaio zen Maria Jesus Arregi Uzin, Azpeitian. Bonifacio Arregi loiolatarren eta Justa Uzin azpeitiarraren alaba zaharrena da. Amaren arbasoak soinu-joleak ziren eta aita-ren familiakoak, berriz, pandero-joleak. Hortik omen datorkio “musikarako grina”; odolean ere badarama zaletasuna Arregik. Jose Mari Arregi (1947, Azpeitia) anaiak ere Azpeitiko Parrokiako abesbatzan abesten du, hura ere soka bereko haria da. Jenio biziko pertsona, baina erabat sentikorra da hurrengo orrialdeetan ezagutuko dugun emakumea.

ABESTIAREN AKORDEAK

Gurasoek markatu zizkioten Arregiri bizitzan zehar jarraituko zituen akordeak. Arregiren aita enpresa-

ria zen, izatez eta pentsatzeko eran. “Sekulako gaitasuna zuen negozioetarako. Garai hartako ekin-tzailea zen, liderra”. Ama, berriz, munduko pertso-narik zintzoena zela azaltzen du Maria Jesusek. “Gure amak urrezko bihotza zuen. Etxe inguruan pertsona pobreak bizi ziren, eta hark etxeko atea guztientzat zabalik izaten zituen”. Bi gurasoek bideratu zuten Maria Jesus bizitzan zehar. Oso desberdinak ziren, baina hori zen gakoa: elkar osa-tzen zuten. “Nabari dut haien nortasunaren eragina nire jokabidean, uste dut bien ezaugarriak jaso ditudala”.

LEHEN NOTAK, IKASTETXEAN

Familia osoa azpeitiarra du Arregik, eta txikitatik Azpeitian egin du bizimodua. Milagrosa Ikastetxean ikasi zuen. Handik duen oroitzapen politena koruarena da. Milagrosako abesbatzan abestu zuen lehen aldiz Maria Jesusek: haietxek izan ziren bere lehen notak. Gabonetako abestien lehiaketa irabazi zuten 1961. urtean, Tolosan; 16 urte zituen orduan. “Guztiok berdin-berdin orraztu-ta eta jantzita joan behar izaten genuen abestera. Ez pentsatu, gainera, edonork abestu zezakeenik:

Maria Jesus, ama, aita eta
anaiarekin, 1960an.



Milagrosa ikastetxeko abesbatza,
1960. urtean.



mojek hautatzen zituzten ikasleak. Sor Karmen zen zuzendaria. Hark bai, hark jartzen zuen diziplina”. Oso gustura joaten zen Marije koruko entseguetara, txiki-txikitatik maite izan du arte hori.

Dena ez zen, ordea, musika eta alaitasuna ikasle garaietan. 16 urte egin zituenerako bideratu zuten Maria Jesus lan mundura gurasoek; kontabilitatea ikasi behar zuen, hori zen etorkizuna. “Kontabilitatea ikasi behar duzu, derrigorrez, lana egiteko”, esaten zion aitak alabari. Alabak, ordea, ez zuen gustuko zientzia hori; ez zen, behintzat, berarentzat nahi zuen ogibidea.

Eskolatik irteten zenean, Victoriano Fernandez *Maisu Beltza*-rengana joaten zen Arregi, kontabilitatea ikastera: takigrafia, mekanografia, komertzioa, kontuen kudeaketa... lantzen zituen irakasle harekin. Maisua oso ona omen zen, baita oso gogorra ere. Bere esku egon balitz, Arregik musika ikasiko zuen, zalantzarik gabe: “Solfeoa edo instrumenturen bat; edozer gauza, baina musika”. Alabari ere pianoa erosi zion umetan, nahiz eta orain inork ez duen “ukitu ere egiten”.

Duela hirurogei urte ez zegoen hezkuntza euskaraz jasotzeko aukerarik Euskal Herrian eta, beraz, Arregik gaztelaniaz ikasi zuen. Haren gura-

soek, ordea, asko maite zuten gure hizkuntza, eta haren aldeko hautua egin zuten katekesirako. “Ni ez nintzen gainontzeko ikasleekin joaten Parrokiako katekesi klaseetara. Gure gurasoek irakasle euskaldun batengana bidaltzen ninduten. Ikasgai hori, behintzat, euskaraz ikasi nuen. Orduan sekulako zortea zen”. Garai hartan, oso ezaguna zen Maria Jesusen katekesiko irakaslea, Elizkaleko Narcisa. “Ziur nago azpeitiar askok oroitu tuko dutela emakume hura”.

MUSIKARI LOTUTA

Ikastetxea utzi zuenean, abesbatza ere amaitu zen Maria Jesusentzat. Hark, ordea, ez zion patuari amen egin, eta Coro de Cámara de Radio Popular de Loiola zeritzon abesbatzan kantatzen hasi zen. “Ikastetxeko abesbatzan ibilitako jendeak osatu genuen, batik bat, koro hura, Don Miguel Txapel apaiza zuzendari genuela”. 1965ean sortu zen taldea, eta urtebete eskas iraun zuen taula gainean.

Abesten jarraitzeko gogoia zuen Arregik, eta sortu berri zen Juan de Antxieta koruan parte hartzen hasi zen, 1967an, gutxi gorabehera. Antxieta Etxean egiten zituzten entseguak; moldaketa

batzuk egin zizkioten eraikinari, eta ekintza kulturaletarako erabiltzen hasi ziren. “Gu han hasi ginen entseatzen, eta horregatik jarri zitzaion Azpeitiko abesbatzari Juan de Antxieta izena. Guk eman genion abesbatzari hasiera; Jose Mari Altuna zen zuzendaria”.

Kontraltoa da Maria Jesus Arregi, nabari da haren ahots goxo baina indartsua entzutearekin soilik. Hutsune bat zuen, ordea, Arregik: ez zekien abestiak irakurtzen, inoiz ez baitzuen solfeoa ikas-teko aukerarik izan. “Ez nekien solfeoa. Irakasleek beti esaten ziguten, gurasoei eta niri, musika ikasi behar nuela, ahots eta belarri onak nituelako. Gure aita, ordea, guztiz kontrakoa zen: ‘Guk horrelakorik ez dugu behar, kontabilitatea behar dugu’, errepi- katzen zidan beti. Nik, jakina, ezin nion ezetz esan horri”.

Urtebetez Parisera musika ikastera joateko aukera ere eman zion Maria Jesusi Javier Bello-Portu (1920-2004, Tolosa) musikari eta konposatzaile ezagunak. Guztia ordainduta izango zuen Arregik, baina etxekoek ez zuten begi onez ikusi proposamena. “Niretzako musika dena da, eta begira zer eskaintza izan nuen; gustura joango nintzen baina... ezin”.

KONTRALTO-AHOTSA

Emakumeen artean, ahotsik baxuena da kontraltoa. Estimua handia diete horrelako ahotsei abesbatzetan, nota baxuetarako erregistro zabala baitute. Baxuenetik hasi zen, bai, Maria Jesus Arregi musikaren munduan: ezerezetik. Hala ere, ez zitzaion asko kostatu gora egitea, inguruko guztiek bere ahotsa eta gaitasuna mirestea.

Atzo balitz bezala gogoratzen du azpeitiarrak Donostiako Orkestrarekin eginiko lehen entsegua: Bachen kantata abestu zuten, Donostian. Zuzendaria oso famatua zen, Prieto Aita, eta irrikatan joan ziren hara. “Lagun bat eta biok ginen bakarlari. Abestia hasi zen, baina zuzendariak ez zigun sarrerarik eman; nik solfeoa ez nekienez, ez nintzen sartu behar nuen momentuan. Orkestra osoa isildu egin zen, eta honela esan zidan zuzendariak: ‘Noiz sartuko zara zu?’”.

Ikastetxea amaitu berritan, Txapelen abesbatzan kantatzen zuen orduan gazteak. Don Miguel apaizak azaldu zion zuzendariari Arregik ez zekiela pentagramak irakurtzen, sarrera eman behar zitzaiola. Gero, ordean, harekin guztiz ahaztu zitekeela esan zion, ongi abesten baitzuen. “Nola da

posible neskato batek Bachen kantata abestea solfeorik gabe?”, esan zuen saminduta zuzendariak. 20 urte zituen orduan Maria Jesusek, eta “oso beldurtuta sentitu” zela dio.

Berriro hasi ziren abesten, eta bigarren aldian eman zion sarrera Prietok: “Nik sarrera ematea soilik behar nuen, beste guztia bikain egiten nuen”. Entsegua amaitu zutenean, orkestrakoak aulkiaren kontra instrumentuekin zaratak egiten hasi ziren: “Ingurukoek azaldu zidaten, haien txalo jotzeko modua zela hura, eta niri ari zirela. Malkotan hasi nintzen, ezin nuen sinetsi”.

AFIZIOA OFIZIO

Adiskide onak aurkitu ditu Arregik musikari esker. Antxietan abesten zuenean, entseguen eta kontzertuen ondoren, beti egiten zuten bazkariren edo afariaren bat, lagun giroan. Jatordu haiek amaitu ondoren, kafearen garaian, rantxerak eta abesti herrikoiak abesten zituzten kantariek. “Zuekin hirukote bat egingo nuke nik”, esan zien Jose Mari Altuna zuzendariak, abesbatzako hiru neskari, entsegu baten ondoren izan zuten afarian. Handik aurrera hasi ziren entseguak egiten Olatz Saldias (Azpeitia,

1949), Arantxa Frantzesena (Azpeitia, 1947) eta Maria Jesus Arregi. “Hasieran, abesbatzaren kontzertuetan edo haien ondoren abesten genuen guk. Nik, nahiz eta solfeorik ez jakin, gitarra jotzen ikasi nuen nire erara, eta talde bat sortu genuen”.

Unai Hirukoa musika taldea sortu zuten 1964an Arregik, Frantzesenak eta Saldiasak. Irabazi asmorik gabeko musika taldea zen, ikastolei eta gisa horretako erakundeei laguntzeko hasi ziren abesten emakumeak. 1966 urtean, Azpeitian abestu zuen lehen aldiz Unai Hirukoak, Santio bezperan. Lehen kontzertuaren ondoren, Olatz Saldiasak taldea utzi zuen, eta Mari Karmen Otaegik hartu zuen haren lekua. Ordutik aurrera, dozenaka plazatan, antzeztokitan eta dantzalekutan abestu zuen hirukoak. “Ez dakit etxean nola utzi zidaten talde bateko kide izaten; korutik irten zen proiektua zenez, haren babesean-edo ezkutatu ginen”.

Taldearen izenak interes izpia sortu dezakeen arren, ez du berebiziko esanahirik musikarientzat: “Jose Mari Iriondori galdetu genion: ‘Zer izen jarri diezaiokegu gure taldeari?’. Unai iradoki zigun, tradizio handiko euskal izena omen da, behien artzain esan nahi du. Ez genekien zer izen jarri, eta deitura horixe hartu genuen”.

UNAI BIKOAREKIN, AURRERA

Olatz Saldiasen ondoren, Arantxa Frantzesena izan zen taldea utzi zuen hurrengo abeslaria. Beraz, Unai Bikoak jarraitu zuen bidea, Mari Karmen Otaegi eta Maria Jesus Arregirekin. Eibarko lehiaketa batean, lehen aldiz, elizako abestietatik alden du ziren musikariok. Edozein kanta aurkez zitekeen lehiaketa hartan, eta “Biok ezagutzean” abestu zuten. Lehenengo lehiaketa izan zen Unai Bikoarentzat, 1969an; eta lehenengo saria, emakume haientzat. “Sari hura irabazi ondoren, arrakasta lortu genuen. Euskal Herri osoko taldeekin egiten genituen kontzertuak. Ez Dok Hamairu taldearekin ere abestu genuen; bikaina izan zen”.

Jose Mari Altunak taldearen gidari izateari utzi zionean, Miguel Mari Azpiazu eta Luis Iriondo azkoitiarrekin hasi ziren musikariak diskoa prestatzen. Haiek animatu zituzten Iruñeko gabon kanta lehiaketan parte hartzera, 1971n. “Lan asko egin genuen eta ongi prestatuta joan ginen, baina saria aurrez emanda zegoen”. Iñaki Gabilondo kazetariak azaldu zien saria Luis Barreto abeslariarentzat izango zela: “Ez ginela aurkeztuko erabaki genuen, baina Gabilondok eta beste kazetari batek esan

ziguten haiek, epaile bezala, ez zutela euren burua salduko, eta guri eta beste bakarlari bati emango zizkigutela puntuak”. Horrela, epaimahaiko beste norbaitek punturen bat emanez gero, irabazteko aukera izango zuen Unai Bikoak.

“Irabazi egin genuen, ez ginen horren txarrak: bi lehiaketatara joan eta lehen postua lortu genuen bietan”. Saria lana argitaratzea zen, beraz, lehiaketa antolatzen zuen diskoetxeak ekoiztu behar zuen hirukoaren diskoa: “Dirudienez, gure abestiaren letrak ez zituen lehiaketako arauak betetzen. Ez naiz oroitzen, zehazki, kantu haren hitzez, baina ziur nago aldarrikapenen bat zentsuratu zigutela”. Kontuan izan behar da, 1971n Francisco Franco diktadorea oraindik bizi zela, eta gizartearen egoera oso desberdina zela.

1977an atera zuten, taldearen diskoa, Franco hil ostean. Lana grabatzeko, Arantxa Frantzesenak ere bat egin zuen taldearekin. “Amaiera gertu ikusten genuen, bizitzako beste etapa batean geunden. Gehien bat, oroitzapen modura grabatu genuen diskoa, guretzat”. Ordutik aurrera apurka-apurka kantua uzten joan zen Maria Jesus: “Ezkontza, familia... gauza asko dira, eta garai hartan beste modu batean ikusten ziren gauzak”.

Unai Hirukoaren diskoko
argazkia. Arregi, Otaegi eta
Franzescena.



Unai Bikoa eta eta Iriondo,
Elbarko lehiaketako saria
jasotzen, 1969an

Unai Bikoa kontzertuan,
1970ean.



Mari Karmen Otaegik (Azpeitia, 1946) Unai Hirukoan zein Unai Bikoan abestu zuen Arregirekin. Bi emakumeak batera hasi ziren Antxieta abesbatzan kantatzen. “Betidanik lagunak izan gara; bai Antxietan, baita taldean ere, oso ongi konpondu izan gara Marije eta biok”, dio Otaegik.

“Gustura ibiltzen ginen diskoteka eta plazetan abesten; ez genuen diruagatik egiten, gozamenagatik baizik. Garai hartan, gainera, euskaraz abestea beritasuna zen, horrek beste taldeengandik desberdindu gintuen. Herri txikietako plazak gogoratzen ditut, bereziki. Unai Hirukoaz hitz egitean, satisfazioa da hitza; jendearen harrera ere bikaina zen”.

Mari Karmenek taldeko lidertzat oroitzen du Maria Jesus: “Kontzertuetan, azalpenen bat eman behar bazen edo publikoaz agurtzen baginen, Marije izaten zen aurpegia ematen zuena: Inoiz ez zuen aitzakiarik jartzen ezertarako”. Bi emakumeek oso harreman ona egin zuten eszenatokietan eta haietatik kanpo: “Taldetik kanpora ere harreman ona geneukan, baina taula gainean, hitz egin gabe ulertzen genuen elkar”.

Oroitzapen bera du Arantxa Frantzesenak ere; talde sortu aurretik ezagutzen zuen Arregi, eta hura beti liderra izan dela nabarmentzen du: “Unai

Hirukoan bera zen taldearen buru, eta gaur egun ere, egiten dituen gauza gehienetan. hala dela esango nuke”. Frantzesenak ere “oso oroitzapen politak” gordetzen ditu: “Garai desberdina zen, abesteari utzi behar izan genion. Gaur egun egoera bera egokituko balitzaiguke, ziur jarraitu egingo genukeela. Urte haiek oso bereziak izan ziren; ez ditu ahaztuko gutako inork”.

BAKARKA, GITARRAREKIN

Maria Jesus Arregiren ezaugarri nabarmenetako bat da ausardia, eta horrela erakutsi zuen gitarra hartu eta ospakizunetan bakarlari gisa abesten hasi zenean ere. Unai Hirukoan abesten zuen bitartean, ezkontza eta festetan ere kantatzen zuen. Batzuetan, Otaegik laguntzen zion; besteetan, bere gitarrak soilik: “Nire bidea jarraitu nuen, hogeit bat ospakizunetan abestuko nuen urte berean”.

Maria Jesusi berdin zitzaion zer motako abestiak kantatu, guztiak zituen gogoko. “Rock talde batean ere abestuko nuke, asko gustatzen zait musika: edozein estilo eta edozein lekutan”. Horren erakusle, Arregi Azpeitiko Musika Eskolako juntako kide izan zen; eta, gaur egun, Baigerako

ekintza musikal guztiak antolatzen dihardu. Azken aldian ere buru-belarri jardun du Marijek Alde Zaharrean eta Sanjuandegin kantu-jira prestatzen.

PARE-PAREKO DOINUA

Andoni Albizuri Agirregabiriak, *Katxo*-k (Azpeitia, 1935-1983) eman zion Maria Jesusi bere bizitzak behar zuen doinua: maitagarria, gozoa eta misteriotsua, zenbaitetan. Nola ez, musikak batu zituen bi azpeitiarrak. Maria Jesusek koruan abesten zue-nean, Andoni antzerkigintzan aritzen zen, Imanol Elias idazle eta alkate ohiarekin. Albizuri antolaketaz, dekorazioaz eta horrelako kontuez arduratzen zen. Leku berean, Antxieta Etxean, entseatzen zuten koruak eta antzerki taldeak, eta handik irtetean kalean afaltzen zuten guztiek batera; “jatordu informal” haietan ezagutu zuen elkar bikoteak.

Ongi gogoratzen du Marijek nola hasi zen harreman hura. Unai Hirukoan jotzen eta abesten zuen garai hartan. Sarritan, kontzertuak amaitu ondoren, dantzara joaten ziren hiru neskak Gau Txori diskotekara. Andonik ez zuen dantza egitera irteteko ohitura handirik, baina gero eta gehiagotan joaten zela sumatu zuten taldekideek.

“Diskotekan ikusten nuenean, hark dantza egitea noiz eskatuko zain-zain egoten nintzen. Han dantzan egiten genuen, eta handik sortu zen gure harremana”.

Milagrosan, Maria Jesusek ikasi zuen ikastetxean, ezkondu zen bikotea, 1972an. Ezkontzako argazkiari begiratu eta egun hura zehatz-mehatz oroitzen du Arregik: “Gure ezkontzako egunean gehien maite genituen pertsonak leku txiki hartan bildu genituen: denak batera zeuden. Azpeitiaren alde lan asko egin duen jendea gogoratzen dut ospakizun hartan”.

Zenbaiten ustez, zinezko maitasuna bizitzan behin bakarrik heltzen da; hori uste du Maria Jesusek ere. Maiteminduta jarraitzen du azpeitiarrak, badaki horrelako beste gizon bat aurkitzea oso zaila dela. “Senarrak eta biok Izarraitzi begiratzten genion, pentsakor. Gure elkarriketen falta sumatzen dut: munduaren zentzua, unibertsoarena, nondik sortu garen, zertarako... hori ezin duzu edonorekin hitz egin”. Arregiren hitzetan, pareparekoak ziren, oso desberdinak, baina elkarrentzat eginak. “Inguruko bizitzaz arduratzen ginen biok, eta galdera berak genituen. Bakoitzak bere zaletasunak zituen arren, nolabait, gure ardurekin bat egiten genuen; aberastasun handia da hori.

Elkarren arteko komunikazioa oso ona zen, guztia kontatzen genion elkarri: arazoak, zalantzak, pozak... dena. Gizon sakona zen Andoni, gauza handia konpartitzen genuen”.

Andoni Albizuri gaixotu egin zen, eta denbora gutxian galdu zuen osasuna. 1983an hil zen; emaztea eta ilazki alaba bakarrik gelditu ziren. “Ikusten zitzaien, apurka-apurka, baina izugarri argaldu zen senarra. Kolpe gogorra izan zen familiarentzat. Bete ezin den hutsunea utzi zuen”.

Asko irakatsi zion senarrak Marijeri; nolabait, abestia afinatzen lagundu zion hark. Ezagutu zutenek diotenez, gizon argia zen, bihotz onekoa eta interesgarria: “Aurrera asko begiratzen genuen, baina baita atzera ere. ‘Nolakoak ote ziren gure arbasoak?’, galdetzen genuen; ‘ez dakigu ezer’, erantzun ohi genion elkarri. Begira, horrela aurkitu zuten Ekain kobazuloa”.

EKAIN, ARBASOEN ERRITMOA

Jakinmin ase ezina zuen Maria Jesusen senarrak. Hark argi zeukan arbasoen isla garela, eta gure eguneroko jardunean berebiziko garrantzia dutela izan zirenen urratsek, erritmoak. Andoni Albizurik

eta Rafael Rezabal Aizpuruk (Azpeitia, 1930) aurkitu zituzten Zestoako Ekain kobazuloa eta hango margoak, 1969ko ekainaren 8an. Bi azpeitiarrak ez ziren, inolaz ere, margoak aurkitzeko helburuarekin gerturatu Zestoako txoko horretara, beste asmo bat zuten: “Arbasoen arrastoak aurkitu nahi genituen, aztarna fisikoak”, azaltzen du Rezabalek. “Kaska-hezurak hemen egon behar dik”, errepikatzen omen zuen behin eta berriz Albizurik.

“Igande batean, gure Vesparekin Izarraiztik beherantz gindoazela, Zestoan bukatu genuen. Sastarrain alboko parajeei begira, leku hark zerbait berezia bazuela susmatu genuen”. Ibaiaren eta mendiaren artean zegoen kobazuloa, leku bikaina zirudien bizitzeko: toki epela neguan, eta bizileku freskoa udan. Inguru haietan bizi zirenek bazuten zerbaiten susmoa: bi gizonei esan zieten zuloren batek egon behar zuela han, animaliak desagertu egiten baitziren baserritik. Horrela, parajea ikertzerara animatu ziren azpeitiarrak: “Kobazuloa estalita zegoen: zuhaixkak, orbela, hostoak... Oso leku zikina eta txikia zen, baina, bi aldiz pentsatu gabe, barrura sartzea erabaki genuen Andonik eta biok”.

Rezabalek eta Albizurik haizea sentitu zuten kobazuloaren barruan. “Hi, aizak, hemen haizea

zagok. Zer egin behar diagu?”, galdetu zion Rafaelek Andoniri. “Aurrera jarraitu, jakina”, erantzun zion hark. Bi lagunek, bakoitzak alde banatatik, aurrera jarraitu zuten. “Kobazuloa gero eta txikiagoa zen, eta arrastaka joan behar izan nuen, tripa lurrean nuela”, gogoratzen du aurkitzaileak.

Azkenean iritsi zen Rafael kobazuloaren sabele-
ra: “Hasieran ez zirudien kobazulo polita, baina
ikaragarri handia zen. Segituan ikusi nituen paretan
marrazkiak: zaldia, idia...”. Hala ere, gosez jarrai-
tzen zuten bi ikerlariak, eta aurrera segitzea eraba-
ki zuten. Orduan aurkitu zuten “inoiz ikusiriko
altxorrik politena”. “Oihu egin nion Andoniri, eta
korrika gerturatu zen. Paretan zeuden margo guz-
tiak ikustean besarkatu egin ginen: izugarrizko
pareta zen hura, guzti-guztia margoz josia”.
Rafaeli, oraindik ere, nekeza egiten zaio sentitzen
duena adieraztea: “Ez dakit hitzez nola azaldu sen-
titu nuena: zoramena zen hura”.

HISTORIAREN ONDAREA

Handik irten eta inori ezer ez esatea adostu zuten,
hasiera batean, bi lagunek. Bazekiten balio handiko
altxorra aurkitu zutela, eta argi jokatu nahi zuten.


Kalera iritsi ziren, koadrilarekin bat egin zuten, eta “ezin sekretua mantendu”. Azkenean, ezinegonak jota, segituan deitu zuten Aranzadi Zientzia elkar-tera. Jose Miguel Barandiaran Aierbe, Aita Barandiaran, (Ataun, 1889-1991), hango zuzendaria, laguna zuten, eta hari azaldu zioten aurkikuntza. “Hark ez zuen sinesten halakorik aurkitu genuenik, mila galdera egin zizkigun, baina ez zitzaion buruan sartzen”, azaltzen du oraindik irribarretsu Rafaelek. “Zestoara joan eta kobazuloa barrutik ikusi zuenean, ordea, harrituta gelditu zen”.

Aranzadiko adituak eta kazetariak Zestoara gerturatu ziren, azpeitiarrek esaten zutena egia zela baieztatzeko. Aranzadik erabaki zuen kobazuloa itxi behar zela, zaindu beharreko ondarea zela hura: “Aranzadik lan asko egin zuen, eta aitortu egin behar zaio: elkarte horri esker mantendu da kobazuloa egoera onean, gaur arte. Jendeak kobazuloetan armak eta horrelako tresnak gordetzen zituen, eta zientzia elkarteak gogor egin zuen lana hori mozteko”.

Ordutik aurrera, kobazulo asko aurkitu dituzte Euskal Herrian. Katxok eta Rafaelek zaletasuna zabaldu zuten gure herrian, eta Antxieta Jakintza Taldea sortu zuten; oraindik ere lanean dihardu tal-



Arregi eta Albizuriren
ezkontza, 1972ko ekainean.



Maria Jesús eta Andoni, Ekaingo
kobazulo parean, 1973an.

Barandiaran eta Albizuri
adiskideak.



Ikerlari taldea. Haien artean,
'Katxo' eta Rezabal.

deak. Rafael Rezabal zintzoa da, gauzak diren bezala kontatzea gustatzen zaio, eta horregatik lotsarik gabe esaten du eurek aurkitu zutenetik lan asko egin dela Ekainen: “Guk aurkitu genuen kobazuloa, baina egia da gerora asko ikertu dutela eta aztarna asko aurkitu dituztela; meritua ez da gurea soilik”.

BARRUKO MELODIA

Askotan esan ohi da barruan entzuten dugun aho-tsari, melodiari, jarraitu behar diogula. Maria Jesusen ustez horixe bera egin zuen senarrak bizitza osoan zehar, barrenari kasu egin zion: “Afizioa, jakin-mina, gogoa eta bizitzeko modu bat zen hura”. Edonora joaten zirenean, autotik paisaiari begira jarduten zuten bi gizonak, inguruetan kobazuloren bat egongo ote zen eztabaidatzen. “Hura bai bizioa! Igandero joan behar zulo haietara, beti arriskuan”, esaten du oraindik erdi haserre Arregik. Bi gizonak asko irakurtzen zuten euren kontura. Ez zuten ikasketarik arkeologiaren alorrean, gauza pertsonala zen. Irakurtzen hasi ziren, interesatzen, gauza gehiagoren bila; ez zen erraza izan bikotearentzat. “Guk lana egiten genuen tailerrean. Oso



Arregi eta Rezabal, mendian.

denbora gutxi izaten genuen libre, eta tarte horiek aprobetxatzen genituen ikerketarako”, azaltzen du Rafaelek.

Andoniren bitartez ezagutu ziren Rafael eta Maria Jesus. Garai hartan ika-mika batzuk izaten zituzten. Nesk lagunak denbora asko kentzen zion Andoniri kobazuloak ikertzeari zegokionean; eta Rafaelek, berriz, Andonik libre zuen guztietan bera-rekin joateko eskatzen zion. Orain, ordea, oso lagunak dira Rezabal eta Arregi: “Senarra hil zenean egin ginen oso lagun, baina lagun-lagunak: oso lagunak. Ordutik aurrera elkarri lagundu diogu beti”.

LAGUNARTEAN ERE EREDU

Ez da zaila Maria Jesusen laguna izatea. Emakume gardena da jubilatua, erraza da harekin konfiantza izatea. Lagunekin mendira joatea gustatzen zitzaion Arregiri, izugarri. Adiskideekin txangoak, kontzertuak, parrandak... denetik egiten zuen hark gaztetan. Haren hitzetan, “bizitzako etapa bakoitzean pertsona desberdinekin lotzen zara, hori da normalena”. Maria Jesusek badu, ordea, bizitza osoan alboan izan duen lagun bat, mila istorio elkarbanatzen ditu Juanita Odriozolarekin.

“Juanita berezia da, bakarra; ia hitz egin gabe ulertzen gara”.

Eskolan ezagutu ziren bi emakumeak. 12 urterekin oso lagun egin ziren, eta gaur arte. “Oso desberdinak gara, horregatik moldatzen gara ongi”, azaltzen du Juanitak. Egunean bi, hiru edo lau aldiz hitz egiten dute telefonoz bi emakumeek, oso harreman estua dute. Ez dute ezer behar ongi egoteko: “Zestoako bainuetxean ere orduak eta orduak pasatu ditzakegu karta sorta batekin, ez dugu ezer behar, elkarren konpainia soilik”.

Juanita hunkitu egiten da Maria Jesus nolakoa den azaltzerakoan: “Lagun handia da, bihotz onekoa, edozertan laguntzeko prest dagoen horietakoa. Emakume handia eta ona. Beste pertsonengan ez ditut ikusten Maria Jesusek dauzkan baloreak: emakume honek inongo interesik gabe laguntzen die pertsoneri, jarraitu beharko genukeen eredia da”. Juanitari asko lagundu dio Maria Jesusek: “Guk gauza oso handia dugu, edonorekin izaten ez dena: badakigu elkarri kontatzen dioguna hor geldituko dela. Era askotako egoerak pasatu ditugu”.

Maria Jesusek Juanitaren bizitza goitik behera aldatu zuen: “Gure amak ez zidan ordurik jartzen erretiratzeko, baina Marijerekin irteten hasi nintze-

nean, erretiratzeko ordua jartzen hasi ziren gurasoak; denbora hegan joaten zitzaigun”. Esan gabe doa, musika mundura murgiltzen ere lagundu zion Arregik lagunari: “Niri asko gustatzen zait musika, eta abesten ere Maria Jesusek irakatsi zidan, bere gitarrarekin”, azaltzen du irribarretsu Arregiren lagun minak.

Bi emakume elkarri begira: elkar maite dute, elkar errespetatzen dute. Benetako lagunak esku batekin kontatzen omen dira, baina bi emakume hauen ustez esku horretan ere behatz batzuk sobe-
ran daude.

EKAITZAREN OSTEAN, BAREA

Juanitak asko lagundu zion Maria Jesusi; haren alboan egon zen emakumearen bi haurdunaldietan ere. Arregik eta senarrak bi haur izan zituzten: lehen alaba, Ilazki, 1974ko urtarrilean jaio zen; bigarrena, Maier, jaio eta handik bost egunera hil egin zela esan zieten ospitalean, 1979ko uztaillean. Andoni Albizuri eta Juanita saiatu ziren Maier ikusten, baina medikuak ez zien utzi nahi izan: “Benetan, hobe da umea nola gelditu den ikusten ez baduzue”, esaten zien hark.



Arregi eta Odriozola, 1995ean.



Arregi, alabaren familiarekin.

Alaba zaharrena, Ilazki, izan da Maria Jesusentzat aurrera egiteko arrazoia. 38 urte ditu, eta hiru haur “zoragarri”. Egunero egoten da bilobekin Maria Jesus: Ekain, 7 urtekoa; Paul, 4 urtekoa; eta Manex, urtebetekoa. Arregik aitortzen du alabari deika jarduten dela, ahal duen guztietan, haurrak noiz hartu ditzakeen galdetzeko. “Haiekin egoten ez banaiz, ezin naiz pozik egon: haiei lotuta nago. Aurrera egiteko, motibazio handia da hiru txikiekin egotea. Halaxe da, bizitza ematen didate Ekainek, Paulek eta Manexek”. Maria Jesusek haurrak eskolara eramaten ditu, batzuetan, eta bestetan haien bila joaten da, ikastordua amaitzean elkarrekin jolasteko: “Ongi moldatzen gara alaba eta biok; gozatu egiten dut, eta, bide batez, Ilazkiri laguntzen diot”.

Izan ere, hurrek erabat zintzoa eta polita ikusten dute mundua, ez dago gaiztakeriarik haientzat; umeen ikuskeratik, elkarri laguntzeko bizi gara guztiok. Noizbehinka bada ere, edonori datorkio ongi haurren munduan murgiltzea: “Eskerrak hiru mutikoekin egunero egon naitekeen, nire arazoez eta eginbeharrez ahazten naiz haiekin nagoenean. Fisikoki asko nekatzen naiz, baina buruak deskantsatu egiten du”.



Senar-emazteak, Ilazki
alabarekin.



Maria Jesus eta Ilazki, Galizia
aldeko hondartza batean.

ALABAREN BIDELAGUN

“Gure ama guztia izan da niretzat: aitarena eta amarena, bien lanak egin behar izan ditu”, dio Ilazki Albizuri Arregik (Azpeitia, 1974). Alabak 9 urte zituela hil zen Andoni Albizuri, aita. Marijeri suertatu zaio, beraz, alaba haztea eta heztea. Ilazkik izugarri eskertzen dio urte hauetan guztietan emandako babesa, eta gaur ematen diona. “Bihotz handia du amak, ez zaio kabitut ere egiten barruan. Txikitatik ama arazoei aurpegia ematen ikusi dut, guztiari aurre egiten. Oso indartsua da”.

Maria Jesus ereduia izan da alabarentzat, ume-tatik. Ilazkik badaki amak ez duela batere bizitza erraza izan, mila ezusteri aurre egin behar izan diela, eta hark hartutako bidea miresten du. “Egiten dituen gauza guztietan esfortzu handia jar-tzen du gure amak. Emakume indartsua da, ener-giaz betea, zintzoa, jakingura handikoa eta umore-tsua; oso alaia eta umoretsua”.

Marijek bizitzako hautuak egiteko askatasuna utzi dio Ilazkiri. Ikasketak hautatzerakoan, kasu, bidea zabalik utzi zion, gehien gustatzen zitzaiona aukera zezan. “Psikologia ikasi nuen Bilbon, eta hasieratik izan dut amaren babesa eta laguntza; ez

dut kexatzeko inolako arrazoirik”. Esan gabe doa, Arregik alabari musikarenganako zaletasuna ere erantsi zion. “Gure amaren bizitzako zati garrantzitsua izan da musika, oso bereziak izan ziren haren-tzat Unai Hirukoan abesten jardundako urteak. Nola ez, gure etxean musikak bere lekua izan du beti: umetan, egongelan esertzen ginen, eta Unai Hirukoaren abestiak kantatzen genituen. Oroitzapen politak ditut”. Maria Jesusek bere bizitzako zaletasuna transmititu zion, beraz, ondorengoari: “Oraindik ere abesten dugu, noizbehinka. Amari izugarri gustatzen zaio abestea; egia esan, niri ere bai, baina amarena... harena berezia da”.

Urte hauetan, Maria Jesusek ez dio askatasuna soilik eskaini alabari, babesa eta laguntza ere eman dizkio. “Badakit zerbait behar dudan bakoitzean, ama hor egongo dela. Oso ongi konpontzen gara, eta egunerokoan asko laguntzen dit. Haurrekin, adibidez, denbora asko pasatzen du. Denontzat ona da hori: niri laguntzen dit, eta bitartean, hark ere ongi pasatzen du. Nabari zaio bilobak izugarri maite dituela, pare bat egun ikusi gabe pasatzen baditu, haiekin egoteko beharra sentitzen du”.

Ama asko bezala, Maria Jesus agintzailea dela ere aitortzen du alabak. “Guztia txukun-txukun iza-

tea, eta gauzak berari gustatzen zaizkion bezala egotea gustatzen zaio. Jenio biziko pertsona da”. Bere izaerak eman dio, Arregiri, ziur aski, aurrera egiteko duen indarra. Gauzak oso argi ditu emakumeak, eta horrela egin du aurrera bizitzan.

LANGILE FINA

Bere ametsa musika bazen ere, etxeko ohiturei jarraitu behar izan zien Maria Jesusek: musikako ikurrak zenbakiengatik aldatu zituen. Gazterik hasi zen Arregi lanean, ikasketak amaitzerako. Aitak negozioa ireki zuen, Muebles Arregi, eta hango kontuak eramaten zituen 16 urterekin. Enpresa hura itxi ondoren, Muebles Olatzen hasi zen beharrean. Arregiren aita eta beste bazkide batzuk batu ziren, eta horrela sortu zuten enpresa. Han langileen soldatak eguneratu eta prestatzeaz arduratzen zen Maria Jesus. “Aitaren enpresako kontuak eramaten nituen nik, baina langileek greba edo protestaren bat egiten bazuten, zalantzarik gabe haiekin bat egiten nuen”. Azpeitiarrak gartetatik izan ditu ideiak argi; gaur, oraindik, langileen duintasuna defendatzen jarraitzen du, duela 50 urte bezala.

Enpresa ixtean, Urkide taldeko Maiak koopera-tiban egin zuen lana. Urteetan Maiak-en lanean jar-dun ondoren, Arrasaten egin zuten proba batera aurkeztu zen 1992an, Lagun Aro aseguru etxean posturen bat lortzeko asmoz. “Idatzizko eta ahozko azterketak egin genituen Arrasaten, eta Donostiara joatea suertatu zitzaidan niri; ezin ezetz esan”.

Donostian hasi zen, beraz, Arregi lanean, 1992ko apirilean, 47 urterekin. Kontratu iraunkorra egin zioten Gipuzkoako hiriburuan, eta oso nekeza zen harentzat egunero joan-etorrian ibiltzea. “Gizona hil zitzaidala denbora gutxi zen, alaba ere ikasten nuen; pentsatu nuen onena Donostian bizi-tzea zela”. Aitak aholkatuta, Azpeitiko etxea man-tendu zuen Arregik, ez zuen saldu, eta gorriak ikusi zituen soldata bakarrarekin etxea ordaintzeko. “Halako batean Lagun Arokoek deitu zidaten, Azpeitian egoitza irekiko zutela eta herrian lana egitea nahi al nuen galdezka. Orduan bai, ederki gogoratu nintzen gure aitarekin”.

MELODIA TRISTEEKIN, AURRERA

Garai latzak izan ziren haiek Maria Jesusentzat: Donostiako etxea ordaindu behar, alabaren ikaske-

tak finantzatu behar, etxekoak mantentzeko ardurara... denerako soldata bakarra zuen. Emakume langilea zen, baina horrek ez zion bermatzen ongi bizitzea. “Oso gaizki pasatu nuen, asko gogoratzen naiz lagundu zidatenekin; bakarrik nengoen, eta ez zen erraza aurrera egitea”.

Garai hark betiko markatu zuen Arregi. Nerbioetatik oso gaizki ibili zen, eta artritis psoriatikoa diagnostikatu zioten. Azaleko eta artikulazioetako gaixotasuna da hori; adituen arabera, oso mingarria eta sendaezina da. Eskuetan eragin zion, gehienbat, gaixotasunak; gaur, oso mugatuta dago eskuekin lana egiteko edo kozinatzeko. Hala ere, lanean jarraitu zuen, Lagun Aron bertan, 60 urte egin zituen arte.

Oroitzapen ona gelditu zaio azken lanetik Maria Jesusi, izugarri gustatzen baitzitzaion bere ogibidea: “Azkenean, guk egia esaten zuenari laguntzen genion; hori lan betegarria da. Aseguruko paperak egiterakoan, segituan jakiten nuen nork esaten zidan egia, eta nork ez”. 60 urterekin aurre-erretiroa eskatu zuen Arregik: “Bakarrik bizi nintzen, eta jada ez nuen ezeren zorrik. Pentsatu nuen iritsi zela deskantsatzeko unea”. Maria Jesusen arduradunari pena handia eman zion emakumeak lana uztea,

baina haren erabakia onartu zuen. Merezia zuen arnasaldia.

LANA, KOMUNITATEARENTZAT

Soldatapeko lana ez da izan, ordea, Arregiren egin-behar bakarra. Erretiroa hartu aurretik, baita jubilatu ondoren ere, izerdi asko bota du herritarren alde lanean; saria azpeitiarren eta ingurukoen esker ona da.

Itxaropenaren Telefonoa deritzon irabazi asmorik gabeko erakundean jardun zuen lanean boluntario gisa Arregik, urtebetez. Erakunde horren helburua osasun mentala indartzea eta krisi egoeran dauden pertsonei laguntzea da. Horretarako, herritarren deiei erantzuten diete boluntarioek. “Larunbatetan joaten nintzen Donostiara, hiru edo lau boluntario egoten ginen, eta txandaka hartzen genituen deiak. Gure lana, batik bat, deitzen zutenei entzutea zen. Azalpenak entzun ondoren, laguntza eskaintzen genien. Psikologo talde bat zegoen nahi zuenari laguntzeko, baina herritarrek nahi zutena norbaitek entzutea izaten zen; telefonoaren beste aldean norbait isilik egotea, guztiguztia entzuten”.

Oso lan gogorra zen hura, Arregiren ustez. Mota guztietako jendeak deitzen zuen, edonolako arazoekin. Hark dioenez, pentsaezina da zenbat herritarrek behar duten laguntza. “Gizon batekin izandako elkarriketa dut gogoan, ez zait ahaztuko. Gizon hark mila arazo zituen, arlo guztietan: lanean, familiarekin, ingurukoekin... Oso gogorra da besteen larruan jartzea”.

ELIZA BAINO GEHIAGO

Parrokiako Batzordean kolaboratzen hasi zenean utzi zion Arregik telefono dei haiei erantzuteari. Parrokiako Batzordeak gizarteari laguntzea du xede, Elizatik haratago. Maria Jesus junta horretan dago; zehazki, espetxe pastoralean egiten du lana. Espetxe pastoraleko esparruan Azkoitiko eta Zestoako herritarrek ere jarduten dute presoei laguntzen eta bisitak egiten.

Eliza barruan mugimendu asko daudela kontatzen du azpeitiarrak: “Guretzat Eliza ez da eraikinak egitea eta dirua sortzea. Leku guztietan bezala, guztiok desberdin pentsatzen dugu, baina Eliza barruan badaude lan izugarria egiten duten pertsonak ere”.

Arregiri asko lagundu dio, pertsona bezala, Elizaren formazioak. Gazte-gaztetatik jaso du heziketa hori, eta leku onetik bideratu du bizitza osoan zehar. “Gaztetatik joan naiz Elizako taldeek antolatutako hitzaldietara, elkarrizketetara, bileretara... eta gaur naizenaren zati bat hortik jasotako heziketari zor diodala sentitzen dut. Eliza ez da Jainkoari errezatzea soilik; Elizako korrante aurrerakoienak erakutsi dit ahulenari laguntzen, guztiei bigarren aukera ematen, edonori akatsak azaltzeko aukera eskaintzen, eskuzabala izaten...”. Besteei laguntzeko gaitasuna bakoitzarena den arren, Maria Jesusi bidea argitu dio fedea, eta horregatik jarraitzen du espetxe pastoraleko taldean lanean.

1990eko hamarkadan hasi zen Maria Jesus kartzelara bisitak egiten, Azpeitiko, Azkoitiko eta Zestoako espetxeratu politikoei eta sozialei. Gaur, inguruetako hiru preso politiko soilik daude Martuteneko kartzelan, baina gehiago egon izan dira. Arregi bi igandetik behin joaten da Martutenera: “Gure lagunak dira presoak, oso ongi pasatzen dugu haiekin. Ez nioke ezergatik utziko hara joateari”. Barrenarekin koherente, hara ere doinu alaiak eta erritmo bizia eramateko asmoa zuen azpeitiarrek, baina presoek zuten gitarra

bakarra kartzela-zainek kendu zietela kontatzen du Maria Jesusek.

Arregik eta haren lagunek orduak pasatzen dituzte espetxeratuekin kartzelako patioan. Batzuetan, kafea hartzera gonbidatzen dituzte, eta han pasatzen dute eguna bromaz bromaz; bestee-tan, haien arazoak entzutea tokatzen zaie boluntarioei. “Mila mezu izaten ditugu presoen lagun, senitarteko eta ezagunentzat, eta oso gustura ematen dizkiegu eskumuinak presoengurukoei. Eginkizun polita da”.

Presoek, hasieran, mojatzen hartzen zuten Arregi, *hermana* deitzen omen zioten. Orain ongi ezagutzen dute, eta han ikusi orduko hasten zaizkio: “Baduzu karamelurik niretzat?, Tabakoa, agian?”. Ez sinestekoa omen da zein eskuzabalak diren; beste norbaitek haiei emandako karameluak bisitariei emateko prest egoten dira, nahiz eta eskuartean beste ezer ez eduki.

Bisitez gain, pastoreko taldeak urtero, Gabonetan, opariak ematen dizkie kartzelariak dau-den emakumei eta haien haurrei. “Presoekin hitz egiten dugu eta zer arropa behar duten galdetzen diegu. Gu zerrenda osatzeaz eta opariak Martutenera eramateaz arduratzen gara; Eroskik,

berriz, materiala ematen digu”. Duela urte batzuk presoek eginiko koadroen erakusketa antolatu zuten Betharrametako erakusketa aretoan.

ETXEKO ATEAK ZABALIK

Presoen alde bisitak baino zerbait gehiago egin du Arregik. Ez zaio arrazoirik falta Maria Jesusi: amak ongi irakatsi zion pertsonak maitatzen. Preso sozial baten alaba izan zuen etxean, bi urtez: Jaione. Hark hamazazpi urte zituela kartzelara sartu zuten Jaioneren aita, eta adin txikikoa zenez, Arregik bere burua eskaini zuen Jaionek 18 urte egin arte hura etxean izateko. Horrela, alaba bezala eduki zuen Jaione etxean, bi urtez, 2002tik 2004ra, hemeretzi urte egin zituen arte.

Maria Jesusek bihotza eman zion neskari, ahal zuen guztia egin zuen harengatik. Jana eta arropa erosten zizkion, ikastera bidaltzen zuen eta lana ere aurkitu zion: “Nire bigarren alaba izan zen hura”. Jaione mutil-lagunarekin bizitzera joan zen Zumarragara, 19 urterekin. Adin nagusikoa zenez, bere bizitza berregiteko askatasuna zuen. Arregik izugarri maite zuen neska hura, eta oraindik asko pentsatzen du beragan.

Izugarri ikasi du presoengandik Maria Jesusek. Haiek ematen omen diote zentzua bizitzari: “Haiei laguntzeak niri ere lagundu egiten dit”. Sufritzen ari denari laguntzea du gustuko. “Presoei laguntza eskaini behar diegu, ez baitira egoera onean egoten. Oso erraza da albokoa epaitzea, baina bakoitzaren egia jakin behar da horretarako. Zer egingo genuke guk haien lekuan egongo bagina?”.

Iosu Badiola Uzin (Azpeitia, 1970) bat dator Arregiren ikuskerarekin arlo horretan. Espetxe pastoreko taldean ibili zen Marijerekin Martuteneko presoei bisitak egiten, 2002tik 2007ra. Arregiren bitartez sartu zen Badiola espetxe pastoreko taldean. “Nik gisa horretako lanen bat egiteko gogoan nuen, eta gure amaren bitartez hitz egin nuen Maria Jesusekin. Oso emakume irekia da, gazteekin ongi konektatzen du, eta segituan hartu genuen konfiantza. Roxario Arrieta, Marije eta hiruok joaten ginen bi astean behin presoak bisitatzeraz”.

Badiolak begirune handia dio Maria Jesusi, eta behar duenari laguntzeko dohain berezia duela uste du. “Sufritzen ari direnekin bat egiten du Maria Jesusek, gaitasuna du horretarako. Presoen artean ezaguna da emakumea; joaten ginen bakoitzeari, guztiak harengana gerturatzen ziren.



Arregi eta Marikruz eta Arantxa Azkue ahizpak.
Martuteneko kartzela atarian.



Maria Jesus eta
Jaione, Pasaian.

Arazoak entzuteko sekulako gaitasuna du, eta hori izugarri eskertzen dute Martuteneko kartzelan bizi direnek. Zalantzarik gabe, jendearengana iristen da Maria Jesus”.

“Pasio handiko emakumea” da Maria Jesus Arregi, Iosu Badiolaren hitzetan. “Ideiak oso argi ditu, eta ez du inongo zalantzarik gauzak diren bezala azaltzeko: presoei argi hitz egiten die emakumeak, zerbait gaizki egiten ari badira. Kartzelako apaizari gauzak aurpegiratzeko ere ez du inongo arazorik. Beti egia esaten du Maria Jesusek, justizia zalea da. Ezagutzen dugunok ongi dakigu: Maria Jesusi injustiziak min handia egiten dio, eta edozer gauza egingo luke hori aldatzeko”.

Emakume borrokalaria da Arregi, beraz, Badiolaren ikuspuntutik, baina Maria Jesus ez da hori bakarrik. “Borrokalaria eta dinamikoa izateaz gain, oso alaia da, umorez gainezka bizi da; bere buruaz ere egiten du barre, inongo erreparorik gabe. Hala ere, gauza bat nabarmenduko nuke Maria Jesusen izaeratik; gainera, neu ere, puntu horretan, identifikatuta sentitzen naiz harekin: eztabaidaren bat dagoenean edo norbaitengatik gaizki-esaka ari direnean, Marijek beti ahulenaren alde egiten du. Berdin du harekin ados ez badago

ere, momentu horretan gehien behar duenari laguntzen saiatzen da”.

Badiolak dioenez, izugarri gustatzen zitzaien presoak bisitatzera joatea: “Haiei laguntzen genien, baina baita gure barrenari ere”. Presoren bat gaixo bazegoen, Martutenetik irten ondoren, hura bisitatzera ospitalera joaten ziren hiru lagunak. “Behin, preso batek haurra izan zuen, eta hura bisitatzera joan ginen ospitalera. Harrituta gelditu ginen, haurra gaixo jaio zen, sindrome batekin. Denborarekin sendatuko zela esan ziguten erietxean, baina irudi gogorra izan zen”. Horrelako gertaerak gordeta ditu buruan Badiolak, Marijerekin bizitakoak duen guztia baloratzen irakatsi baitio.

INDIAN ERE ARMONIAZ

Euskal Herrian soilik ez, hemendik kanpo ere lagundu die Maria Jesusek gehien behar dutenei. Senarraren arrebarekin, Elena Albizurirekin, hilabete pasatu zuen Indian azpeitiarrak. 2000. urteko urrian hilabeteko oporraldia eskatu zuen, eta boluntario gisa joan zen Asiako hegoaldera. Koinata misiolaria da, Indian dagoen oihan batean.

“Hiritik abiatu, eta sei ordu behar dira autoz oihan hartara iristeko, bidea izugarri txarra da. Hangoian ez dago estaldurarik, ezta komunikatzeko modurik ere”. Maria Jesusek hamabost egun egin zituen oihan hartan misiolari moduan; eta beste hamabost, Kalkuta eta Shillongen: “Esperientzia zoragarria izan zen; hango egoera ez dago hitzez azaltzerik”.

Elenita oso maitea du Maria Jesusek. Hunkitu egiten da “emakume handi” hartaz hitz egiten duen bakoitzean. “Elenita eredu bat da niretzako; oso urrun egon arren, gertu sentitzen dut. Haren bizitzeko modua izugarri gustatzen zait, neure burua ikusten dut bere lekuan. Elenarekin sentitzen dudana hurbiltasunak poza ematen dit, konektatu egiten dugu: zoragarria da”. Duela 40 urte joan zen Indiako Meghalaya estatura, eta ordutik misiolari lanetan dihardu.

Koinataren lagunak ziren moja batzuekin abiatu zen Maria Jesus Indiarantz. Madrilen hartu zuten hegazkina, eta hara iritsi zirenean ohartu zen ez zuela bisarik. Madrilera bueltatu eta, berriro, Indiara itzuli behar izan zuen azpeitiarrak. “Ez nuen pentsatu bisa beharko nuenik. Hori bai, ez zitzaidan burutik pasatu ere egin Indiara ez itzul-



Arregi eta haren lagun
azpiazu, Egipton.



Marije eta Elena koinatarekin,
Indian, 2000. urteko azaroan.

tzea. Joan egin nahi nuen, kosta ala kosta. Berriro Indiara iritsi nintzenean, pankarta batekin zeuden guztiak nire zain: Txapeldun! Munduari bira eman diozu bost egunetan, jartzen zuen bost metroko pankarta hartan, gorriz”.

Elenitak, Arregiren koinatak, eskola sortu zuen Indiako oihan txiki hartan. Horrez gain, emagin lanak ere egiten ditu emakumeak. “Bi erditze ikusi nituen han. Emakumeek ez dute ez hitzik, ez zaratarik egiten haurra izaterakoan; benetan harrigarria da hango kultura”.

Maria Jesusi bizitza aldatu zion Indiara eginiko bidaiak: “Han ez dute ezer, oso gutxirekin bizi dira; gu, aldiz, beti kexaka”. Begirune handia dio azpeitiarrak Elenari: “Hark oraindik Indian jarraitzen du, galdutako ohian hartan, jendeari laguntzen, bere familiarengandik milioika kilometrora”. Bi emakumeek harremanetan jarraitzen dute, eta Maria Jesusi asko axola zaio, oraindik, bailara hartan gertatzen dena. Bidaia hark orban bat utzi zion bihotzean, “beste begi batzuekin” ikusten du hemengo bizitza orain.

Hala ere, Maria Jesusek aitortzen du bizitzan zehar eginiko bidaia guztiak ez direla izan besteei laguntzeko soilik. Bidaia zalea da, izugarri gusta-

tzen zaio abentura, eta bere indarra geldituko duenik ez dago. Musikarekin parekatzen du azpeitiarrak leku berriak ezagutzeko duen grina: “Ni bidaiaria naiz, uste dut musika eta bidaiak nahikoa izango nituzkeela bizitzeko”. Jordanian, Egipton, Sirian, Suitzan... leku askotan izan da Arregi.

IDEIAK ETA BALOREAK ARGI

Maria Jesus beti saiatu da koherente izaten bere ideiekin, eta hori nabarmena da haren eguneroko jardunean. Gazteen rola sutsuki defendatzen du. Bai duela hogeitau urte, baita gaur egun ere, gazteen jokaerak berebiziko garrantzia duela uste du Arregik: “Gazteen pentsamoldeak, jokatzeko erak eta ideiek baldintzatuko dute gizartearen etorkizuna”.

Bakea du xede Maria Jesusek, eta helburu horretara iristeko bidea jorratzen dihardu. Horregatik hasi zen Elkarrirekin lanean. Elkarrik bat egiten zuen azpeitiarraren asmoarekin: biolentzia alboratuta eta elkarrizketa oinarritzat hartuta, euskal gatazka bakegintzara bideratzea zuen xede plataforma hark. Elkartea 1990ean sortu zen, eta

1993an funtzionatzen hasi zen Azpeitian. “Laxaro Azkune, Aitor Azpillaga eta beste pertsona batzuek osatutako lan-taldea Sanjuandegiko parrokoiko lokalean hasi zen biltzen. Talde hura sindikatuekin, alderdi politikoekin eta ikastetxeekin hitz egiten hasi zen”.

1995ean sartu zen taldera Maria Jesus. Talde hartako batek animatu zuen Arregi haiei laguntzera. Arregiri asko gustatu zitzaion dinamika, gainera, Martuteneko presoekin hartu-eman handia zenez, ekarpen esanguratsuak egin zitzakeela pentsatu zuen. “Nahi gabe inplikatu nintzen proiektuan. Elkarri gure herriko testuingurura ekarri genuen, eta Azpeitian hasi ginen elkarriketa errazteko dinamikak sortzen”.

Pentsatu eta egin. Baigerako lokalean alderdi desberdinetako ordezkariak bildu zituzten 1998-1999 urteetan. Bake Forum izena jarri zien solasaldi haiei. Gazte eta heldu, eskuineko eta ezkerreko, euskaldun eta espainiar: guztiak gela berean bildu zituzten. Helburua herritarrek elkarri entzutea zen: hitzaldiak, mahai-inguruak, eztabaidak... elkarriketa ahalbidetzen zuten ekitaldiak antolatzen zituzten Elkarriko azpeitiarrek. Joseba Egibar (EAJ), Antton Karrera (EB), Rafa Diez (LAB), Jose

Elorrieta (ELA), Gazte Mugimenduetako ordezkariak edo Ricardo Hueso (PP) bezalako pertsona kontrajarriak ekarri zituzten Azpeitira, hitz egitera eta eztabaidatzera.

“Ongi gogoratzen dut PPko Ricardo Hueso Baigerara iritsi zen unea. Eraikina ertzainez inguratuta zegoen; itxura denez, gertatu zitekeenaren beldur ziren”. Maria Jesusek berak hitz egin behar izan zuen Ertzaintzarekin, eta gerta zitekeenaren erantzukizun osoa bere gain hartu zuen.

“Horrela kontatuta oso polita dirudi, baina inork ez gintuen ongi begiratzen; ez alde batekoek, ez bestekoek. Niri berdin zitzaidan, gertutik ezagutu dut sufrimendua, horregatik hasi nuen bakearen aldeko bidea Elkarrirekin. Elkarrizketa behar dugu, inposaketak ez baitu funtzionatzen. Uste dut hori frogatu dugula jada”.

ETXETIK EUROPARA BEGIRA

Esparru horretan, Europara begiratzea beharrezkoa da Arregirentzat. Gainontzeko lekuetan, Euskal Herriko gatazkaren gisako arazoak nola konpondu diren ikustea “aberasgarria” da denen-

tzat, haren esanetan. “Hizketan egin dutelako zuzendu dira gatazka eta guda asko, ezin dugu gure zilborrari begira bizi: ireki, entzun eta ikasi egin behar dugu”. Horregatik gustatu zitzaion Arregiri Elkarriren filosofia; bide berrietara zabaldua zegoen taldea zen, elkarriketaren aldekoa. “Badakigu talde honek ez dituela mirariak egin, baina bide batzuk ireki ditu, eta ez da erraza”.

“Arazoa latza da; ez dut inolako zalantzarik. Konponbidea iritsiko omen da, baina noiz?”. Arregiren ustez, hasteko, parte-hartzea falta da herri mailan, baita erakundeen aldetik ere. “Herria mugitzen ez den bitartean, guztia zailagoa izango da. Bada garaia gatazka bide zuzenetik eramateko, injustizia alde guztietan egon baita”.

2006. urtean Lokarri izena hartu zuen Elkarri elkarteak, Paul Rios koordinatzaile zuela. Lokarri izan zen, hain zuzen, Donostian, Aieteko konferentzia antolatu zuten taldeetako bat. Orain, Maria Jesusek ez du buru-belarri jarraitzen proiektuan, denera ezin baita heldu. Hala ere, bazkide izaten jarraitzen du, eta ahal duenean haiei laguntzen saiatzen da: loteria saltzen, bileratan parte hartzen edo taldeari iradokizunak eta ekarpenak egiten, besteak beste.

EMAKUMEEN ESKUBIDEEN ALDE

Esan gabe doa, bakegintzan berebiziko garrantzia dute elkarrenganako errespetuak eta berdintasunak ere. Emakumeen eskubideak errespetatu behar ditugu erabateko parekidetasuna lortzeko, eta horretan ere jarri du hondar-alea Maria Jesusek.

Maria Jesus Arregi izan zen Gure Ametsa elkartean sartu zen lehen emakumea. Senarra hil zenean, haren lekua libre gelditu zen, eta elkarteko kide izateko eskubide osoa zuela aldarrikatu zuen Maria Jesusek. Garai hartan, ez zen oso normala emakumeak elkarreetako bazkide izatea, eta bi aldiz zenbatu behar izan zituzten bozak hura onartzeko. Beraz, Andoniren lekua hartu zuen Maria Jesusek. Apurka-apurka bazen ere, ia kide guztiak iritsi ziren elkarteko emakume bakarra errespetatzera: “Begira nolakoak diren kontuak, gero lehendakari jarri ninduten elkartean”. Emakumeetan, lehen kidea eta lehen lehendakaria izan da Arregi Gure Ametsan. Bidea ireki zuen, eta etorriko direnentzat errazagoa da ordunik elkartera egokitzea.

Manuel Maria Altuna Bengoetxea *Kanpaxa* (Azpeitia, 1939) Gure Ametsa elkarteko kidea da, eta oraindik gogoratzen du Maria Jesus soziedade-

an sartu zen eguna. “Garai hartan arraroa zen emakume bat elkarteko kide izatea. Marije sartu zenean, jendea harrituta gelditu zen hasieran: lehen emakumea zen, eta bakarra. Gainera, bakarra izaten jarraitzen du; haren ondoren ez da gehiago emakumerik sartzea suertatu”. Kanpaxak, ordea, ez du uste emakume izateagatik desberdin tratatu denik Maria Jesus: “Batzuei, agian, ez zitzaien gustatuko hura sartzea, baina ez dut uste inoiz arazorik izan dugunik Marijerekin. Guztiz kontrakoa, elkarteko presidente ere hautatu genuen, eta presidentea guztien artean aukeratzen da”.

Maria Jesusek ez zuen nahikoa elkarteko lehen-dakari izatearekin. Behin elkarte barruan, danborradan emakumeek ere parte hartzea nahi zuen: “Zergatik ezin genuen guk danborra jo?”, galdetzen du. Taldetxo bat bilduz gero danborra jotzeko aukera izango zutela esan zioten Arregiri. Elizabeth Altuna da danborradan hasiera-hasieratik irteten den herritarretako bat: “Marijek elkartean proposamena egin zuen gaua ederki oroitzen dugu guk. Alboko tabernan geunden emakume taldea, erlojuari begira; hura noiz etorriko zain, hark zer esango ote zigun galdezka. Baiezkoa eman zigun, eta aste beteren bueltan guztia antolatu genuen: tal-



Gure Ametsatik danborradan irten ziren lehen emakumeak, 2006an.



Arregi eta haren lagunak inauteriez gozatzen.

dea, arropak, danborrak... zoramena izan zen. Hala ere, emakumeontzat garaipen bat zen hura”. Horrela sortu zuen Arregik, 2006an, Gure Ametsa taldean emakumeentzako lekua: “Oraindik ere irte-ten dugu danborradan, eta horrela jarraituko dugu”.

FESTAZALEA

San Sebastian jaiez gain, karnabalak ere izugarri gustatzen zaizkio Arregiri. Orain gutxi arte, urtero irteten zen mozorrotuta inauterietan, eta izugarri gozatzen zuen. “Mota guztietako festak gustatzen zaizkit niri. Karnabalak oso maiteak izan ditut beti, gaupasa ederrak egindakoak gara gu inauterietan. Oroitzen dut parrandan ibili, eta ordubiak aldera elkartera joaten ginela, baratxuri-zopa jatera. Ondoren, festan jarraitzen genuen”.

Maria Jesusen alabak Ilazkik ere uste du amaren alderdi garrantzitsua dela jaietan ongi pasatzeko grina. “Gure ama festazalea da, jaietan abesten eta dantza egiten bikain pasatzen du, eta hori bere izaeraren alderdi garrantzitsua dela uste dut”.

Jaietan ere lana egiteko konpromisoa hartzen du Arregik; denok ongi pasatzeko, gutxi batzuek

lana egin behar izaten baitute. Enparan kaleko Korputz eguneko jaia antolatzen du urtero, ekainean, kale horretan bizi den koadrila batek. Mila Aizpuruk, Mari Karmen Aranguren, Pili Elorzak eta Maria Jesus Arregik bazkaria antolatzen dute, Enparan kaleko zaharrenei omenaldia egiteko. “Koadrila polita biltzen gara Korputz jaietan. Jada, agian, Enparan kaleko sentimendu hori galtzen ari da, baina gure garaian garrantzitsua zen. Kanpoan bizi diren enparandarrak ere etortzen dira egun horretan, oso ongi pasatzen dugu beti”.

BAIGERAN, GIZARTEARI LOTUTA

Askok pentsatuko dute behin erretiroa hartuta, Maria Jesusi ez zitzaiola ezer falta egiteko: abeslari, kudeatzaile, misiolari, kartzelako bisitari, bakegintzako gidari... mila rol izan ditu azpeitiarrak. Emakume honek, ordea, ez zuen etsi jubilatutik ondoren. Adinekoei laguntzeko garaia iritsi zitzaiola pentsatu zuen, eta Baigera Jubilatuen Elkarteari ere ekarpen handia egin dio Arregik. Lau urte egin zituen taldeko juntan: 2007tik 2010era bitartean jardun zuen han lanean. Gainera, lau urte haietako azken biak, lehendakari gisa egin zituen.

Itziar Azpiazu Elorza (Azpeitia, 1946) eta Maria Pilar Arruti Azpeitia (Azpeitia, 1942) Baigerako kideak dira, Arregirekin batera. Arruti, gainera, harekin juntan egon zen zenbait urtez. Azpiazuk eta Arrutik diotenez, Arregi juntan hasi zenean, abiatu zituen ekimen berriak erakundeak. “Lehendik egiten ziren gauzak ongi egiten ziren, eta horiei eusten saiatu ginen. Horiez gain, ordea, gauza berriak prestatzeko konpromisoa hartu genuen”, azaltzen du Arrutik.

Aldaketa bat izan zen Baigeran garai hartan: informazio guztia eta kontabilitatea euskarri elektronikora pasatu zuten, adibidez, erretiratuei lana errazteko. “Proiektu berriekin hasi ginen lanean; ezin esan saiatu ez ginenik. Zerbitzu publikoak hobetzeko hautua egin genuen: inplikazioa, ardura eta konpromisoa erakutsi genuen garai hartan”. Haiek presidentzian izan zirenean antolatu ziren, besteak beste, esperientzia eskolak Baigeran. Horietan gai desberdinak landu zituzten, hitzaldien bidez: musika, osasuna, erlijioa, historia, emakumearen rola... Santotomasetako txosna ere legealdi hartan egin zuten, eta saninazioetako bakailao lehiaketan parte hartzen hasi ziren. “Festarako eta lanerako, denerako, parte-hartzea sustatu genuen.



2008ko Baigerako batzordea,
Kiruri Jatetxean.



paran Kaleko Korputz
una antolatzeri duen
dea, Ipar Euskal Herrian.

Guztiengana iritsi nahi genuen, gazteena eta hel-duena; herritarren aldetik erantzun ona jaso genuen”, gogoratzen dute emakumeek.

Baigerako kideen ustez, Maria Jesusek rol garrantzitsua izan zuen juntan bereziki, eta taldean, oro har. “Talde lana egitera bultzatzen gintuen beti Marijek, berebiziko garrantzia ematen zion horri. Hark ederki zekien taldean beharra nola egin, ongi prestatua zegoen, eta izugarri lagundu zigun denoi. Horrela da, lan asko egin zuen”, dio Maria Pilar Arrutik. Baigera izena ere Arregik asmatutakoa da: “Jubilatuen taldeak Aitonena izena zuen. Erreparatzen badiozue, gizonen soilik egiten die erreferentzia izen horrek. Udalak deitura aldatzeko lehiaketa bat antolatu zuen, eta han ere Marijeren proposamenak arrakasta izan zuen: deitura ere aldatu zion talderi”.

Arregirekin jubilatuen taldean ibilitakoek baieztatzen dute, oraindik ere, lan izugarri egiten duela: “Bizi egiten du, hori da hitza. Guztientzako onbidea bilatzen du eta albokoaren parean jartzen daki. Ez da gelditu ere egiten, gaztetako errodahea du oraindik”, azaltzen du Itziar Azpiazu.

Hasiera batean, Baigerak aisia soilik lantzen zuen, baina azken urteetan, Maria Jesus eta beste

azpeitiar batzuek alde sozialari heldu diote; horretan ere aitzindari da emakumea. Gaur egun, taldea antolatzen eta informazioa jasotzen ari dira. Jubilatuen egoera, eskubideak, bizitoki duina izateko baliabideak... nolakoak diren aztertzea nahi dute. “Ikusiko dugu herriak zer erantzun ematen dion proiektuari; badago lana egiteko, eta gogoia ere bai”.

Nola ez, musikarekin lotura duten jarduerak Maria Jesusek antolatzen ditu Baigeran. Hileko bigarren ostiraletan egin ohi den kantu-poteoa ere Arregiren ideietako bat da. Urteak aurrera doaz, baina gauza batzuk inoiz ez dira aldatuko.

ETENIK GABEKO ABESTIA

Esan bezala, etenik gabeko abestia da Maria Jesus Arregi Uzinen bizitza. Adina ez da muga emakume honentzat, eta egunez egun erakutsi ohi du. Gaur, 68 urterekin, mila jardueratan parte hartzeko arduratu du bere gain, eta gauza berriak probatzen jarraitzeko gogoia du. Horren erakusle, aurten (2013) Ipar Euskal Herriko dantzak ikasten hasi da. Lehen dantzaldia ere egin du taldearekin, herriko plazan. Ez du etenik, ez, abestiak.

Heriotzari ez dio beldurrik Maria Jesusek, eta bitartean gelditu ere egin gabe jarraitu nahi du, bizi-bizi.

Maria Jesus da, beste hainbat emakumeren artean, historia emakumeena ere badela erakutsi diguten pertsonetako bat. Egia da aurkikuntza liburuetan gizonen izenak soilik ageri ohi direla, baina hori ez da emakumeak orain arte geldirik egon direlako. Azpeitiar honek argi erakutsi du iraganak ez ezik, etorkizunak ere emakume aurpegia duela.

Uztarriatik datorkit
liburuxkaren eskaintza
esker onean sortzen zait
beraiekin parte-hartzea
gaur eguneko egoeran
garrantzia, lehentasuna
famili, langabeziak
osasuna ta bakea
gorabeherak izan arren
hamaika arazo dira
adostasunak sortuaz
eraiki sendotasuna
indartu gaitezen denok
sustrai sakonak badira
merezi du gure herriak
egin dezagun aurrera

Maria Jesus Arregi Uzin

UZTARRIAREN PRODUKTUAK

LIBURUAK

Joxe Takolo	Enekoitz Esnaola, 2001
Angel Otaegi	Iban Arregi, 2001
Imanol Elias	Mailo Oiarzabal, 2002
Patxi Altuna	Josune Etxeberria, 2003
Azpeitiko efemerideak	Imanol Elias, 2003
Azpeitiko mendi gida	Lagun Onak M. B./Uztarria, 2004
Euskarazko prentsa eta Azpeitia	Uztarria, 2004
Loiolarik ez balitz	Iñigo Aranbarri eta Jose Luis Otamendi, 2005
Otsobeltz	Andoni Salegi, 2005
Urrestillako musika taldeak	Asier Sustaeta, 2006
Azpeitiarrak Espainiako Gerran	Amaia Mendizabal, 2006
Oroitarri	Kepa Urbieto, 2008

CD-A

Urolaldeko bertso zaharrak	Emiarraitz Bertsozale Elkarte eta Uztarria, 2007
----------------------------	---

LIBURUXKA BIOGRAFIKOAK

Julian Bereziartua	Ander Ugarte, 2009
Leo Etxeberria	Miren Garate, 2009
Valentina Agirre	Olatz Prat, 2009
Santi Lazkano	Nekane Zinkunegi, 2010
Amaia Garmendia	Xabier Otamendi, 2010
Enkarna Arregi	Alexander Silva, 2010
Iñaki Bergara 'Pio'	Monika Juaristi, 2011
Bernardo Aizpitarte 'Kabra'	Joxin Iturriotz, 2012
Enrike Zurutuza	Ihintza Agirretxe, 2012

UZTARRIAREN BABESLEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



